

TXISTURAKO KONPOSIZIO LEHIAKETA 2018

OINARRIAK

- Euskal Herriko Txistulari Elkarteak **2018ko Txisturako Konposizio Lehiaketaren** deialdia egiten du.
- Lehiaketaren **helburu nagusia txisturako zein bere familiako instrumentuentzako obra berrien sorkuntza sustatzea da.**
- Txistuaren familiako instrumentuak ondorengo zerrendatik hautatuak behar dute izan: Txistua, Silbotea, Txilibitua edo Txistu-baxua. Txistuaren kasuan danbolina edo beste perkusio tresna bat erabiltzea gomendatzen da.
- **Gehienez sei musikariz** osaturiko obrak izan behar dute. Hauetatik gutxienez batek, txistua edo txistuaren familiako instrumentu bat erabili beharko du gutxienez.
- Partaideak edozein adin eta jatorrikoak izan daitezke.
- Sorkuntzetan ezin izango da amplifikazio edo elektronikarik erabili.
- **Obren iraupena 10 minutukoa** izango da gehienez.
- **Aurkeztutako lanak** aurretik enkargatuak izan daitezke, baina, edozein kasuetan ere, **estreinatu edo argitaratu gabeak izan behar dute.** Aurretik saritu edo argitaratutako obrak ez dira onartuko.
- Sorkuntzak eskuizkribu moduan (idazkera garbiarekin) edo ordenagailuz idatzirik aurkez daitezke. Saritutako lanak ordenagailuz idatzi beharko dira derrigorrez, eta egilearen erantzunkizuna izango da lana informatizatuta helaraztea antolakuntzari, emaitzak eman eta 30 eguneko epean.
- Konposatzaileek obraren kopia bana bidaliko dute, bertan bere izenik edo identifikaziorako aukerarik ematen duen zeinurik idatzi gabe. Honekin batera, obraren izenburua azalean duen kartazal itxi batetan egilearen datuak, telefono zenbaki bat eta helbide elektronikoa bat bidaliko dira.
- Sorkuntzak honako helbide honetara bidaliko dira:


Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa

Alfonso XI, 2

20.100 Erreterria (Gipuzkoa)

***Obrak aurkezteko epea 2018ko irailaren 1ean bukatuko da.**

*Txistuaren edo lehiaketaren inguruko edozein zalantza argitzeko, idatzi honako helbide honetara: konposiziolehiaketa@txistulari.eus



TXISTURAKO KONPOSIZIO LEHIAKETA 2018

- Epaimahaia bi konpositore ospetsu eta txistulari batek osatuko dute.
- Epaimahaiaren ondoan Euskal Herriko Txistulari Elkarteko idazkaria izango da, boto eskubiderik gabeko mahaikide bezala.

SARIAK:

Lehen saria: 1.500€

Bigarren saria: 1.000€

Sari berezia:

500€ Txistu bandarako obra onenari

(bi txistu, silbotea eta perkusioa).

*Diru sariak, legeak agintzen duen zergei loturik egongo dira.

- Antolatzaileek, epaimahaikideek hala adostuz gero, sariak hutsik utz ditzakete.
- Epaimahaikideen erabakiak apelaezinak izango dira.
- Euskal Herriko Txistulari Elkartek obren grabaketa, produkzioa edo banaketa egin ahal izango du, eta egileek, horren truke, legeak adierazten dituzten irabaziak jasotzeko eskubidea izango dutelarik, eta ez besterik.
- **Lehiaketako pieza sarituak Euskal Herriko Txistulari Elkartek argitaratuko ditu.**
Sarituak ez izan arren, beste obrak ere argitaratzeko aukera izango du elkarteak, epaimahaiak horrela erabakitzen badu.
- Lan sarituen berri ematean (kontzertu-programetan, argitaratzean zein bestelako soinu adierazpenetan) honako lema hau erabili beharko da derrigorrez:
“Euskal Herriko Txistulari Elkartearen 2018ko Txisturako Konposizio Lehiaketan saritutako obra”.
- **Lehiaketan parte hartzeak oinarrien onarpenera dakar berarekin.**

